

Haziak mintzo



Aldaketak Aiherrako eskolan


Ikasle berri anitzeri ongi etorria egiteaz gain, gure eskolan aldaketa frango izan dira.

Ikasgela berri bat ukan dugu eta gure lehengoa, kirola egiteko sala bat bilakatu da. Ttipien gelan ziren arrainak errekuperatu ditugu. Orain, liburutegi handi

bat badugu. Hobeki da gure tailer guziak untsa altxatzen ahal baititugu eta ondorioz baldintza onetan lan egiten dugu. Lan autonomoentzat leku gehiago badugu eta material berria badugu. Aurten, eskolako antolaketa aldatu baitugu, egunero euskaraz eta frantsesez ikasten dugu. Proiektu eder anitz baiditugu. Ondoko asteetan, gehiago aipatzen ahalko ditugu. Egon prest, laster gehiago jakiten ahalko baituzue !

Aiherrako Sortzez Garbiko
lehen, 2, 3, 4 eta 5.urteko
ikasleak

euskalhaziak@gmail.com


Euskal Haziak